

**VITORIA-GASTEIZ**

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

5070

**Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren Funtzionamendu Araudiaren behin betiko onespena.**

2007ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran eman zitzaion hasierako onespena Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren Funtzionamendu Araudiari. Ez zenez inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu horren inguruan, erabaki hori behin betikotzat jo zen 2008ko ekainaren 19an, eta, horrenbestez, indarrean jar dadin, ALHAOn argitaratu beharra dago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko uztailaren 14an.– Alkatea, PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

**Eranskina**

IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIAREN  
FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA

**AZALPENA**

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak X. tituluan arautzen dituen "populazio handiko udalerriek" Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia sortu behar dute, lege beraren 20. artikulua –abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua–, 1. idatz-zatiaren d hizkian xedatutakoari jarraiki.

Gasteizko Udalak berak onetsitako Udalbatzaren Araudi Organikoak eta Herritarren Parte-hartzearenak arautzen dituzte Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren osaera, antolamendua eta haren zereginak, baita behin osatutakoan funtzionamendurako araudia taxutuko duela ere, hain zuzen, udalbatzak onetsi egin beharko duena.

Goian adierazitako xedapenak eta haiekin bat datozenak aintzat harturik, Eledunen Batzarrari entzun zitzaion, horrela behar duelako, eta kide guztien adostasunez osoko bilkurara igorri zen Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia sortzeko proposamena, 2007ko urriaren 26ko ohiko bilkuran onetsi baitzen.

Batzordekideak izendatu ondoren, batzordea osatu eta haren funtzionamendurako araudiaren proposamena lantzeari ekin zitzaion. Sindiko-Herritarren Defendatzaileari entzun zaio eta testuari erantsi zaizkio haren ekarpenak.

Gasteizko Udalbatzaren Araudi Organikoaren 197.2. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoa aintzat harturik, Iradokizun eta Erreklamazio Batzordean kide diren udal alderdietako ordezkariak ondoren jasotzen den testua adostu dute.

**1. artikulua.- Xedea**

Herritarren Parte-hartzearen Araudiak 86. artikuluan eta Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia sortzeko erabakian –2007ko urriaren 26ko udalbatzaren bilkuran hartutakoa– xedatutakoa bete eta garatzeko eman da honako araudia.

Batzordearen funtzionamendua, baita Iradokizun eta Erreklamazioaren Erregistroaren ardura duen udal zerbitzuarekiko zein Sindikoa-Herritarren Defendatzailearen Bulegoarekiko koordinazioa ere, arautzea du xede, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, zein Udalbatzaren Araudi Organikoak eta Herritarren Parte-hartzearenak xedatzen ez dutenei dagokienez.

**LEHEN KAPITULUA**

IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIAREN  
FUNTZIONAMENDUA ETA BILKURAK

**2. artikulua.- Bilkura motak.**

Bilkurak ohikoak izango dira eta, behar denean, apartekoak

**VITORIA-GASTEIZ**

SECRETARÍA GENERAL DEL PLENO

5070

**Aprobación Definitiva del Reglamento de Funcionamiento de la Comisión Especial de Sugerencias y Reclamaciones.**

Acordada en sesión ordinaria del Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de 25 de abril de 2008 la Aprobación Inicial del Reglamento de Funcionamiento de la Comisión Especial de Sugerencias y Reclamaciones, que se entiende definitivamente aprobado el 19 de junio de 2008 al no haberse presentado ninguna reclamación ni sugerencia, procede su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, conforme establece el art. 70-2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local 7/85, como requisito para su entrada en vigor.

En Vitoria-Gasteiz, 14 de julio de 2008.– El Alcalde, PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

**Anexo**

REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DE LA COMISIÓN  
ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La Ley 57/2003, de 16 de diciembre, da nueva redacción al artículo 20 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, que establece, en su apartado 1, letra d), para los denominados "municipios de gran población" regulados en el Título X, la obligación de crear una Comisión Especial de Sugerencias y Reclamaciones.

En su desarrollo, los Reglamentos Orgánicos Municipales del Pleno y de Participación ciudadana aprobados por este Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz regulan la composición, organización y funciones de la Comisión Especial de Sugerencias y Reclamaciones, y determinan que, una vez constituida, se dotará de un Reglamento de Funcionamiento que deberá ser aprobado por el Pleno.

Considerando las disposiciones arriba reseñadas y sus concordantes, la Junta de Portavoces, oída como es preceptivo, y por consenso de todos sus miembros, elevó al Pleno propuesta de creación de la Comisión Especial de Sugerencias y Reclamaciones, que resultó aprobada en sesión ordinaria de 26 de octubre de 2007.

Una vez designados los miembros de la Comisión, se constituyó la misma, y dio comienzo la elaboración de la Proposición de Reglamento que habrá de regular su funcionamiento. En su desarrollo, se ha oído al Síndico-Defensor Vecinal, y se han incorporado al texto sus aportaciones.

Considerando lo dispuesto en el artículo 197.2 y concordantes del Reglamento Orgánico del Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, los Sres. y Sras. Portavoces de los Grupos Municipales en la Comisión de Sugerencias y Reclamaciones han consensuado el texto normativo que a continuación se desarrolla

**Artículo 1 Objeto**

El presente Reglamento se dicta en cumplimiento y desarrollo de lo dispuesto por el Reglamento Orgánico de Participación Ciudadana, en su artículo 86, así como del acuerdo de creación de la Comisión Especial de Sugerencias y Reclamaciones, adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión de fecha 26 de octubre de 2007.

Tiene por objeto regular el funcionamiento de la Comisión, así como su coordinación con el Servicio Municipal responsable del Registro de Sugerencias y Reclamaciones, y con la Oficina del Defensor/a Vecinal o Síndico/a, en lo no previsto en la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local y los Reglamentos Orgánicos Municipales de Pleno y de Participación Ciudadana.

**CAPÍTULO PRIMERO**

FUNCIONAMIENTO Y SESIONES DE LA COMISIÓN ESPECIAL  
DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES

**Artículo 2 Clases de sesiones**

La Comisión celebrará sesiones ordinarias y, en su caso, extraordinarias.

Ohiko bilkurak hiru hilean behin izango dira; lehen deialdia udalbatzaren organoen bilkurak egiteko Eledunen Batzarrak onetsitako egutegian agertzen den egun eta orduan. Hala ezin denean, bigarren deialdia egingo da, ordubate geroago, baldin eta gutxienez batzordeko hiru kide bertan badira; horietako bat batzordeburua eta bestea idazkaria izan beharko dira.

Aparteko bilkurak lehendakariak hala erabakitzen duenean egingo dira, edo gutxienez kideen legezko kopuruaren heren batek eskatzen duenean.

3. artikulua.- Bilkuretarako deialdia.

Oro har, bilkura eguna baino lau lanegun lehenago egingo da deialdia. Aparteko bilkura izanez gero, epe hori errespetatu gabe egin ahalko du deialdia batzordeburuak, eztabaidatu beharreko gaiak presakoak direnean, eta horretarako arrazoiak eman beharko ditu.

Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren bilkuretara joateko dei formala egingo zaie kide titularrei zein Sindiko-Herritarren Defendatzaileari. Batzordeburuak Informazio Zerbitzuko buruari deitu ahalko dio, egoki ikusten duenean, eta beharrezkoa bada, udal zerbitzuetako edozein arduraduni.

4. artikulua.- Ohiko bilkuren gai-zerrendak.

Ohiko bilkuren gai-zerrendan, gutxienez, honakoak sartu beharko dira:

Lehen zatian.- Jasotako iradokizun eta erreklamazioak, baita haien tramitazioa ere, bilduko dituen informazio sistema abiapuntu harturik ematen den hiru hileko txostenaren balioespena.

Bigarren zatian.- Sindikoa-Herritarren Defendatzaileak ematen duen hiru hileko txostenaren balioespena; burututako kudeaketaren berri emango da bertan. Izapidetzean zerikusia duten pertsonen datu pertsonalak ez dira agertuko; zenbat eta nolako iradokizun zein erreklamazio egin diren, zergatik egin diren, bulegotik burututako izapidetze- eta kudeatze-lanen emaitzak, baita egin diren gomendio edo iradokizunak ere, jasoko ditu txostenak.

Hirugarren zatian.- Sindikoa-Herritarren Defendatzaileak batzordeari helarazi dizkion gomendio txosten-proposamenen eztabaida eta irizpena, bere ekimenez edo eskatzen diotelako .

Sindiko-Herritarren Defendatzaileak eskatuta, Konstituzioaren 18. artikulua bermatzen dituen eskubideak babeste aldera, hirugarren zatia atearik itxita burutzeko erabaki ahalko du batzordeburuak.

5. artikulua.- Batzordeak egindako bilkuren aktak

Batzordearen bilkura guztien akta jasotzeko ardua udalbatzaren idazkaritza nagusiarena izango da, bertan non eta zein egunetan bildu den, bertaratuen izenak, iraupena eta aipatzea egoki diren ingurubarrak jasoko dira. Erabakitako gomendioak hitzez hitz jasoko dira, baita, kasua denean, gehiengoaren iritziarekin bat ez datozen boto partikularrek ere.

#### BIGARREN KAPITULUA

#### IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDEAREN ZEIN UDALAREN INFORMAZIO ZERBITZUAREN –IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIOAK ERREGISTRATZEKO ARDURADUNA– NAHIZ SINDIKO-HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN ARTEKO KOORDINAZIOA

6. artikulua.- Herritarren eskubideak.

Herritarren Parte-hartzearen Araudiak, 7. artikuluko c eta g hizkietan, herritar guztiei aitortzen die udalaren eskumeneko gaien edo toki eremuko zerbitzuen funtzionamenduari inguruko erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko eskubidea, udalaren Informazio Zerbitzuak ezartzen dituen bideen bitartez.

7. artikulua.- Iradokizunak

Toki eremuko zerbitzuak hobetzera bideratua herritar batek aurkeztutako adierazpena iradokizuna da; jada, eskaintzen ari diren

Las sesiones ordinarias, de periodicidad trimestral, se celebrarán en primera convocatoria en la fecha y hora que fije la Junta de Portavoces al aprobar el Calendario de Sesiones de los órganos plenarios. Y, cuando no fuese posible, en segunda convocatoria una hora más tarde, si concurre un mínimo de tres miembros de la Comisión, hallándose presentes quienes hayan de desempeñar la presidencia y las labores de secretaría.

Las sesiones extraordinarias se celebrarán cuando así lo decida el/la Presidente/a, o lo solicite la tercera parte, al menos, del número legal de sus miembros.

Artículo 3 Convocatoria de las sesiones

En general, las sesiones se convocarán con cuatro días hábiles de antelación a su fecha de celebración. En el caso de las sesiones extraordinarias, cuando los asuntos a debatir revistieran carácter de urgencia, el/la Presidente/a podrá convocarlas sin respetar dicho plazo, motivando tal decisión.

A las sesiones de la Comisión Especial de Sugerencias y Reclamaciones se convocará formalmente a todos sus miembros titulares, así como al Defensor/a Vecinal o Síndico/a. El/la Presidente/a podrá convocar, cuando lo estime oportuno, al/la responsable del Servicio de Información, y si fuese necesario al/la responsable de cualquiera de los diferentes Servicios Municipales.

Artículo 4 Orden del día de las sesiones ordinarias

En el Orden del día de las sesiones ordinarias se incluirán en todo caso, como mínimo:

En su parte primera.- La valoración del informe trimestral emitido a partir del sistema de información que recoja las sugerencias y reclamaciones recibidas y su tramitación.

En su parte segunda.- La valoración del informe trimestral emitido por el/la Defensor/a Vecinal o Síndico/a, dando cuenta de la gestión realizada. Dicho informe, en el que no constarán los datos personales de las personas implicadas en la tramitación, reflejará el número y tipo de las sugerencias y reclamaciones formuladas, los hechos que las han motivado, el resultado de los trámites y gestiones llevados a cabo por la Oficina, y las recomendaciones o sugerencias que se hayan realizado.

En su parte tercera.- El debate y dictamen de los informes-propuesta de recomendación elevados a la Comisión por el/la Defensor/a Vecinal o Síndico/a, bien a iniciativa propia o bien cuando sea requerido para ello.

A petición del/la Defensor/a Vecinal o Síndico/a, motivada en la salvaguarda de los derechos garantizados por el artículo 18 de la Constitución, el/la Presidente/a de la Comisión podrá determinar que la Parte Tercera se desarrolle a puerta cerrada.

Artículo 5 Acta de las sesiones de la Comisión

La Secretaría General del Pleno elaborará acta de cada una de las sesiones de la Comisión, en la que se harán constar el lugar y fecha de su celebración, la relación de asistentes, su duración, y las incidencias que sea oportuno reseñar. Y se transcribirán literalmente las recomendaciones adoptadas, así como, en su caso, los votos particulares de aquellos de sus miembros que discrepen del parecer mayoritario.

#### CAPÍTULO SEGUNDO

#### COORDINACIÓN DE LA COMISIÓN DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES CON EL SERVICIO MUNICIPAL DE INFORMACIÓN, RESPONSABLE DEL REGISTRO DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES, Y CON LA OFICINA DEL DEFENSOR/A VECINAL O SÍNDICO/A

Artículo 6 Derechos de los y las ciudadanos/as

El Reglamento Orgánico de Participación Ciudadana, en su artículo 7, letras c) y g), reconoce a todos los y las ciudadanos/as el derecho a formular reclamaciones y sugerencias sobre materias de competencia municipal o sobre el funcionamiento de los servicios de ámbito local, a través de los canales que establezca el Servicio Municipal de Información

Artículo 7 Sugerencias

Se entenderá por sugerencia cualquier manifestación de un/a ciudadano/a dirigida a la mejora de los servicios de ámbito local,

zerbitzuen ingurukoa edo berriren bat martxan jartzearen aurreikuspenari buruzkoa izan daiteke.

#### 8. artikulua.- Erreklamazioak

Udalak eman edo kontrolatzen dituen zerbitzuen kudeaketa ez eraginkorra edo jarduera ez egokia dela uste duenean herritarrak aurkezten duen adierazpena erreklamazioa da; azalpena edo zuzentzeko jarduera beharko du.

#### 9. artikulua.- Iradokizun edo erreklamazioetat hartzen ez direnak

Araudi honen ondorioetarako ez dira iradokizun edo erreklamazioetat hartuko honakoak:

- Udalaren eskumen edo kontrol eremutik kanpo dauden jarduera edo zerbitzuen inguruan egiten diren adierazpenak
- Eskubide edo interes partikularrak aitortzea helburu dutenak

#### - Administrazio-errekurtsoak

Azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoak, 7/1985 Legearen 70 bis.2. artikulua edo Herritarren Parte-hartzearen Araudiaren 17. artikulutik 33ra doazenean babesten dituzten eskaerak

- Izenik gabe edo haien aurkezlearen benetako nortasuna ziurtatua egon gabe egiten diren adierazpenak

- Udal zerbitzuek gauzatzen dituzten adierazpen, txosten, akta edo antzeko dokumentuak

#### - Informazio eskabideak

- Udal langileen zerbitzu harremanarekin zerikusia duten eska-bideak

#### - Ondare Erantzukizunarekin zerikusia duten erreklamazioak

#### 10. artikulua.- Iradokizun eta erreklamazioak aurkeztea

Iradokizun eta kexak Informazio Zerbitzuak horretarako jartzen dituen bideak baliatuta aurkeztuko dira. Horiek zein horien inguruan ematen diren ebazpen guztiak jasota geratuko direla bermatuko da.

#### 11. artikulua.- Iradokizun eta erreklamazioak aurkeztearen ondorioak

Iradokizun eta erreklamazioak ez dira inoiz eskabide edo errekurtsotzat hartuko, eta horiek aurkezteagatik ez da eten egingo arauz ezarritako inolako eperik. Interesdunek dagozkien bestelako eskubide edo ekintzak gauzatu ahalko dituzte.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legeak xedatutakoarekin bat, iradokizun edo erreklamazioak aurkezten dituzten herritarrek izapidetzearen egoera, une oro, ezagutzeko eskubidea izango dute, baita dagokien erantzuna jasotzekoa ere, zeina emango baitzaie aukeratu duten moduan, edo bestela, aurkeztutako dokumentuan agertzen den helbidean.

#### 12. artikulua.- Batzordeari zuzendutako iradokizun eta erreklamazioak bideratzea

Batzordeari zuzentzen zaizkion iradokizun eta erreklamazioak erregistratu ondoren, Sindiko-Herritarren Defendatzailearen Bulegora bidaliko dira, eta handik gaiaren inguruko gomendio txosten-proposamen bat bidaliko zaio batzordeari. Txosten-proposamen hori hurrengo ohiko bilkuran gai-zerrendan sartuko da, eztabaidatu eta onesteko, salbu eta, batzordeburuak gaiaren ezaugarriengatik aparteko bilkura baterako deia egitea egoki ikusten badu.

Batzordeari iradokizuna edo erreklamazioa aurkezten dion herritarrak hura eztabaidatuko den bilkuran agertu nahi duela adieraziz gero –erreklamazioa aurkeztean–, egin ahalko du; batzordekideek eskatzen badute, ekimena azaltzeko eta eskatzen zaizkion adierazpen osagarriak emateko hitza emango zaio. Behin agerraldia amaitu dela, batzordekideek, Sindikoa-Herritarren Defendatzailearen txostena entzun ondoren, dagokion gomendioa eztabaidatu eta onetsiko dute.

### HIRUGARREN KAPITULUA

#### IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIAREN GOMENDIOAK ETA TXOSTENAK

#### 13. artikulua.- Batzordearen gomendioak jakinaraztea

Batzordeak egindako gomendioak Sindikoa-Herritarren Defendatzailearen Bulegora helaraziko dira, baita Herritarrei

bien en cuanto a la prestación de los que se están ofertando, bien en cuanto a la previsión o puesta en funcionamiento de alguno nuevo.

#### Artículo 8 Reclamaciones

Se entenderá por reclamación cualquier manifestación de un/a ciudadano/a, relacionada con una percepción de ineficacia o de actuación inadecuada en la gestión de los servicios que presta o controla el Ayuntamiento, que requiere una explicación o una actuación correctiva.

#### Artículo 9 Conceptos no incluidos

No se entenderán sugerencias o reclamaciones, a los efectos previstos en este Reglamento:

- Manifestaciones relativas a actividades o servicios fuera del ámbito de competencia o control del Ayuntamiento
- Pretensiones de reconocimiento de derechos o intereses particulares

#### - Recursos administrativos

- Peticiones amparadas por la Ley Orgánica 4/2001, de 12 de noviembre, por el artículo 70 bis.2 de la Ley 7/85, o por los artículos 17 al 33 del Reglamento Orgánico de Participación Ciudadana

- Manifestaciones realizadas de forma anónima, o aquellas en que no resulte acreditada la verdadera identidad de quien la presente

- Partes, informes, actas, o documentos similares elaborados por los servicios municipales

#### - Solicitudes de información

- Solicitudes relacionadas con la relación de servicio de los empleados públicos municipales

#### - Reclamaciones de responsabilidad patrimonial

#### Artículo 10 Presentación de sugerencias y reclamaciones

Las sugerencias y reclamaciones se presentarán por los canales que habilite al efecto el Servicio de Información. Se garantizará su constancia así como la de todas las resoluciones que se adopten sobre las mismas.

#### Artículo 11 Efectos de la presentación de sugerencias y reclamaciones

Las sugerencias y reclamaciones no tendrán en ningún caso la calificación de instancia o recurso, ni su presentación paralizará ningún plazo establecido normativamente. Quedará a salvo el ejercicio de cuantos otros derechos o acciones correspondan a los/as interesados/as

En los términos establecidos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas, el/la ciudadano/a que presente sugerencias o reclamaciones tendrá derecho a conocer en todo momento su estado de tramitación, y a obtener adecuada respuesta, que se le comunicará en la forma que haya elegido, o, en su defecto, a la dirección o domicilio que consten en el documento presentado.

#### Artículo 12 Tratamiento de las sugerencias y reclamaciones dirigidas a la Comisión

Las sugerencias y reclamaciones dirigidas a la Comisión, una vez registradas, se remitirán a la Oficina del Defensor/a Vecinal o Síndico/a, quien elevará a la Comisión un informe-propuesta de recomendación acerca de las mismas. Dicho informe-propuesta se incluirá para su debate y aprobación en el orden del día de la siguiente sesión ordinaria a celebrar por la Comisión, salvo que, a juicio de la Presidencia, revista características que aconsejen la convocatoria a tal fin de una sesión extraordinaria.

Si así lo hubiese solicitado al formularla, el/la ciudadano/a que hubiese dirigido a la Comisión una sugerencia o reclamación podrá comparecer personalmente en la sesión en que la misma vaya a debatirse, y se le concederá la palabra para exponer su iniciativa a los miembros de la Comisión, y aportar las indicaciones complementarias que se le soliciten, en su caso. Una vez finalizada la comparecencia, los miembros de la Comisión, oído el informe del Defensor/a Vecinal o Síndico/a, debatirán y aprobarán la recomendación que proceda.

### CAPÍTULO TERCERO

#### RECOMENDACIONES E INFORMES DE LA COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES

#### Artículo 13 Comunicación de las recomendaciones de la Comisión

Las recomendaciones elaboradas por la Comisión se comunicarán a la Oficina del Defensor/a Vecinal o Síndico/a, al/la

Laguntzeko Zerbitzuko arduradunari eta gomendioa jaso behar duten udal zerbitzu edo zerbitzuen arduradunei ere.

Batzordeari zuzendutako erreklamazio edo iradokizunekin zerikusia duten gomendioak badira, adierazpen horiek egin dituztenei jakinaraziko zaizkie.

#### 14. artikulua.- Batzordearen txostenak udalbatzari aurkeztea

1.- Batzordearen oroit-idazkia –txosten gisakoa– egingo du urtero batzordeburuak udalbatzaren idazkari nagusiarekin batera, non batzordearen lana jasoko baita, honakoak, hain zuzen:

- Informazio Zerbitzuak emandako txostenen balioespena, Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren 84. artikulua xedatutakoarekin bat; aurkeztutako kexen eta udal zerbitzuen funtzionamenduan antzemandako akatsen berri emango da, eta udal administrazioak onartu ez dituen iradokizun edo erreklamazioak zehaztuko dira.

- Sindikoa-Herritarren Defendatzaileak haren bulegoan jasotako iradokizun eta erreklamazioei, haien kudeaketari eta egindako gomendioei buruz emandako informazioaren gaineko balioespena.

- Batzordeak berak urtean zehar egin dituen gomendio guztien testua

- Gasteizko Udalaren aurrean herritarrek dituzten eskubideak defendatzeko zeregina hobetzeko balioespenak eta proposamenak; Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 132. artikulua ezartzen dio batzordeari zeregin hori.

2.- Gertakarien larritasun edo premia dela eta, aparteko txostena eman ahal du batzordeak.

3.- Udalbatzari emango zaio txosten horien berri, Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren 84. artikulua xedatutakoarekin bat.

#### Azken xedapena

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean araudi hau.

### VITORIA-GASTEIZ

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

5065

**Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko ekainaren 20ko erabakia, Kontratazio Mahaiko kideak izendatzeari buruzkoa.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2007ko ekainaren 29an, Kontratazio Mahaiko kideak zein idazkaria izendatzea erabaki zuen.

Ondoren Nerea Gálvez Lavín zinegotzi andreak uko egin zion karguari, eta Saioa Castañeda Díaz andrea haren ordeztatu zuen. Tokiko Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoaren titularren lekua hutsik gelditu da.

Gainera, Udalbatzaren Idazkari Nagusiari agindu zaizkio Tokiko Gobernu Batzarraren eskumeneko gaiak prestatzeko hainbat zeregin, besteak beste, kontratazio prozeduretan erabaki behar direnak.

Hori dela eta, izendapen berriak egin behar dira Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 127. artikulua –Tokiko Gobernu Batzarraren Eraberritzeko Neuriei buruzko 57/2003 Legeak xedatutakoaren arabera– batzarrari aitortzen dizkion eskumenak baliatuta eta Sektore Publikoaren Kontratuak buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen bigarren xedapen gehigarri eta 295 artikuluaarekin bat.

Hori guztia aintzat harturik, hona alkate lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari egiten dion

responsable del Servicio de Atención Ciudadana, y al/la responsable del Servicio o Servicios Municipales a los que dichas recomendaciones se dirijan.

Si las recomendaciones se hubieran emitido en relación con reclamaciones o sugerencias dirigidas a la Comisión, se comunicarán igualmente a quien o quienes hubieran suscrito dichas manifestaciones.

Artículo 14 Presentación al Pleno de los Informes de la comisión

1.- Anualmente se elaborará por la Presidencia, con la colaboración de la Secretaría General del Pleno, un Informe-Memoria del trabajo de la Comisión, que recogerá:

-Su valoración de los informes emitidos por el Servicio de Información, según lo dispuesto en el artículo 84 del Reglamento Orgánico de Participación Ciudadana, dando cuenta de las quejas presentadas y de las deficiencias observadas en el funcionamiento de los servicios municipales, con especificación de las sugerencias o reclamaciones no admitidas por la administración municipal.

-Su valoración de la información aportada por el/la Defensor/a Vecinal o Síndico/a acerca de las sugerencias y reclamaciones recibidas en su Oficina, la gestión de las mismas, y las recomendaciones emitidas al respecto.

-La transcripción de la totalidad de las recomendaciones emitidas durante el año por la propia Comisión

-Valoraciones y propuestas de mejora acerca del ejercicio de la función de defensa de los derechos de los y las vecinos y vecinas ante la Administración Municipal del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, encomendada a la Comisión por la Ley de Bases de Régimen Local en su artículo 132.

2.- Se elaborarán por la Comisión informes extraordinarios cuando la gravedad o la urgencia de los hechos lo aconsejen

3.- De dichos Informes se dará cuenta al Pleno, según lo establecido por el Reglamento Orgánico de Participación Ciudadana, en su artículo 84.

#### Disposición final

Este Reglamento entrará en vigor al día siguiente de su completa publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

### VITORIA-GASTEIZ

ORGANO DE APOYO A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

5065

**Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 20 de junio de 2008 sobre nombramientos de Vocales de la Mesa de Contratación.**

La Junta de Gobierno Local acordó, en sesión de fecha 29 de junio de 2007, el nombramiento de vocales y secretaria de la Mesa de Contratación.

Con posterioridad, la concejala D<sup>a</sup> Nerea Gálvez Lavín ha renunciado a su cargo, habiendo sido sustituida por D<sup>a</sup> Saioa Castañeda Díaz. Y ha quedado vacante el puesto de Titular del Órgano de Apoyo a la Junta de Gobierno Local.

Por otra parte, se han encomendado a la Secretaria General del Pleno determinadas funciones para la preparación de asuntos de competencia de la Junta de Gobierno Local, entre ellos los que proceda adoptar en procedimientos de contratación.

Procede por lo tanto efectuar algunos nuevos nombramientos, en ejercicio de la competencia que a la Junta atribuye el artículo 127 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en su redacción debida a la Ley 57/2003, de Medidas para la Modernización del Gobierno Local, y en relación con la Disposición Adicional Segunda y el artículo 295 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.

En virtud de todo lo anterior, el Alcalde Presidente formula a la Junta de Gobierno Local la siguiente